

European Language Diversity Summit
Europako Hizkuntza Aniztasunaren Goi Biler





European Language Diversity Summit
Europako Hizkuntza Aniztasunaren Goi Bilera

Europako Hizkuntza

Aniztasunaren Goi Bilera

*Gizaki orori dagozkio eskubide eta askatasun berdinak; ez da inor diskriminatuko arraza, larrukolorea, sexua, **hizkuntza**, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.* Halaxe dio, behinik behin, 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak.

Gizakiaren oinarrizko eskubide horietan kokatu behar ditugu, zalantzarik gabe, hizkuntza eskubideak. Hizkuntzek komunikatzeko balio dute, baina hizkuntza errealitatea ezin zaio lotu bakarrik dimentsio komunikatiboari; hau da, hizkuntzak ezin dira kulturetatik bereizi. Hizkuntzen eta kulturen arteko harremana ukatzen denean, hiztunen eta herritarren duintasunari muzin egiten zaio. Hartara, hizkuntza aniztasunaren aldarrikapena pertsonen eskubide guztien defentsarako ekarpen gisa ulertzen dugu.

Horrexegatik, garatu nahi dugun dinamikak tresna bat eskaini nahi du bide honetan; hain zuzen ere, gizarte ongizatean eta elkarbizitzan laguntzeko ekarpena; bai eta bakean ere. Izan ere, hizkuntza komunitateekiko jardun demokratikoen bilakaerak giza baldintza guztiekiko errespetuaren bermea ekarriko du.

Europa osoan zehar hizkuntza komunitateak euren berezko hizkuntzetan bizi ahal izateko antolatu dira. Ehunka dira hizkuntza gutxituen garapenean, hainbat eremutatik, lan egiten duten gizarte erakundeak. Proiektu honek horien bilgune izan nahi du, Europako gizarte zibilak hizkuntza aniztasunaren garapenerako proposamena gauzatzean lidergoa izan dezan.

Azken hamarkadatan Donostian eta Euskal Herrian gutxitutako hizkuntza baten garapenerako ahalegin kolektiboa bizi da. Europako Kultur Hiriburutik eta honen jarraipena egiten duten erakundeetatik egokitzat jotzen da berezko errealitate horretatik abiatu eta Europako beste hizkuntza komunitateekin elkar aberasteko ariketa egitea. Izan ere, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburu proiektuak bere elementu garrantzitsuenen artean ditu kultura, elkarbizitza eta hizkuntzak.

Zehazki, *Europako Hizkuntza Aniztasunaren Goi Bilera* proiektua goitik behera europar dimentsioko proiektua da; europar pertsona, eragile eta sareen elkarlanean oinarrituko delako eta lantzen duen gaia Europako gizarteek partekatzen dutelako.

2016an Donostian hizkuntzen garapena helduleku anitzeko gaia dela ikusiko da eta herritarrek mezu horrekin bat egiteko deia egingo da. Mugarri bat ezarriko da eta nazioarte mailan erakundeek hizkuntza aniztasunaren garapenerako neurri zehatzak proposatzeko aukera sortuko da.



Europako Hizkuntza Aniztasunaren Goi Bilera

Europako Hizkuntza Aniztasunaren Goi Bilera, Donostia / San Sebastián 2016 Europako Kultur Hiriburua Fundazioak eta Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluak elkarlanean garatuko duten proiektua da.

Proiektua gizarte eragileen, antolakundeen eta adituen arteko prozesu bat zabaltzea izango da, hizkuntzen arteko berdintasuna bermatzeko protokolo bat jorratzeko eta horren ondorioak nazioarteko goi bilera batean aurkezteko.

Protokoloa hainbat lantaldek aurreko urteetan garatutako adoste prozesuaren emaitza izango da eta ikuspegi zientifikoa, akademikoa eta gizartearen ikuspegia bilduko ditu. Hizkuntza gutxituen egoera irauli eta hizkuntza komunitateen arteko berdintasunean oinarritutako Europa eraikitzeko tresna. Hor-taz, proiektutik sortutako ondarea, protokoloa, nazioarteko foro eta instantzietara eramango da izaera anitzeko erakundeek hizkuntza aniztasunarekiko duten konpromisoaren arautzaile gisa erabil dezaten.

Hizkuntza Aniztasunaren Goi Bilera 2016ko abenduan burutuko da Donostian, bi egunez. Bertan proze-suari amaiera eman eta landutako protokoloa aurkeztuko da. Prozesu osoan zehar lanean aritutako eragile eta pertsonen gain, proposatutako Protokoloaren sinatzaileen multzoak hartuko du parte Goi Bileran. Sinatzaile multzo hori hizkuntzen arloan erreferentziazkoak diren gizarte eragileek zein per-tsonen osatuko dute.

Proiektuaren helburu nagusiak

Lau helburu nagusi ditu proiektuak:

- 1.** Hizkuntza aniztasuna bermatzea eta hizkuntzen garapena ziurtatzea elkarbitzita, bai eta bakerako oinarri funtsezkoak direla aldarrikatzea ere.
- 2.** Hizkuntza berdintasunaren alde eta desabantaila egoeran dauden hizkuntzen garapenerako tresna eraginkorra sortzea.
- 3.** Hizkuntza komunitateak prozesu honetan subjektu gisa agertzea eta gizartea kudeaketa justu horren berme dela aldarrikatzea.
- 4.** Donostia eta Europako Kultur Hiriburua prozesu honetan mugarri izatea.

Proiektuaren oinarrizko balore eta printzipioak

Elkarbizitza eta bakea: Garatu nahi dugun dinamikak tresna bat eskaini nahi du, eta gizarte ongizatean, elkarbizitzan eta bakean sakontzeko ekarpena izango da. Kontuan izan behar dugu, bakea pertsonen eta giza taldeen bizi baldintza duinak ezartzearen ondorioa dela. Hartara, hizkuntza komunitateen duintasunaren errespetuak ekarriko du bakea. Pax linguae hitzaren edukia bermatzeko tresna prestatzea izango da gure betekizuna.

Aniztasuna: Hizkuntza aniztasuna babesten dugu gizateria osoaren aberastasun kulturalaren parte delako. Berau zaintzea guztion betebeharrak dira. Pertsonak eta gizarteak homogeneizazio kulturalera daramatzaten indarrak eta inertzia indartsuak daude. Horiek pobretzea suposatuko lukeelako, uste dugu beharrezkoa dela hizkuntza aniztasunaren balioa goraiatzeko.

Berdintasuna: Munduko hizkuntza guztiei balio bera aitortzen diegu. Gaur egun, euren egoeran desberdintasun handiak daude. Zenbaitek garapenerako oztopoak dituzte eta herritarren arteko oinarrizko printzipio den berdintasuna ez da bermatzen.

Eskubideak: Pertsona eta talde ororen eskubideak babesten ditugu. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekin bat egiten dugu; bertan aitortzen zaio pertsona orori hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea. Halaber, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren espirituarekin eta bertan aitortzen diren eskubideak ditugu ardatz; hain zuzen ere, bertan aitortzen diren pertsonen, taldeen eta komunitateen hizkuntza eskubideak.

Baldintzak: Gaur egun Europar hizkuntza komunitateek bizi dituzten baldintzekin desorekak eta desberdintasunak ematen direnez, desabantailan dauden hizkuntzei lehentasuneko traktamendua ematea berdintasunerako urrats bezala ulertzen dugu. Hizkuntzen garapenerako baldintza sozial, politiko eta ekonomiko egokiak bermatuz soilik babestu daitezke hizkuntza aniztasuna. Hurrengo belaunaldiei ahalik eta testuinguru kultural eta linguistiko aberatsena utzi ahal izateko, pertsonen eta komunitateen aukera berdintasuna bermatzeko baldintzak sortu behar dira.

Gizartea prozesuaren sustatzaile eta bermatzaile

Aitortu nahiko genuke, Europako hizkuntza komunitateen inguruan eratu behar den gizarte zibil antolatua. Bizitza demokratikoago batera jotzeko nahiak gizarte zibilaren aldarrikapena eta bizi gogoa suspertu ditu, eta horri esker lortu egin da herritarren sentsibilitatearen eragitea.

Bi ezaugarri horiek uztartzeko bidean, 1996an Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala aurkeztu zen Bartzelonan. Gizarte zibilaren ahalduzko ondorio historikoa izan zen aipatu Deklarazioa. Hain zuzen ere, pertsona bakoitzaren eta komunitate bakoitzaren identitatearen adierazpide diren hizkuntzak aintzat hartuta, hizkuntza eskubideen garrantzia mahai gaineratzeko gizarte zibilak egindako ekarpena. Hizkuntza batzeko elementu gisa ardatz zuen adierazpena.

Bestalde, gizartearen ahotsa islatzeko tresna izan zen aipatu Deklarazioa. Instituzioetatik haratagoko gune batean sortutako erreminta. Alegia, edozein koiuntura politikotik haratagoko babesa eta bermea izango zuen dokumentua.

Printzipio horiek berreskuratu nahi ditugu proiektu honekin. Hau da, Europako milioika herritarren bozgorailu diren erakundeek eta eragileek adostutako tresna bat sortu nahi dugu. Horrexegatik, hizkuntza komunitateen arteko egiazko berdintasuna erdiesteko Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasotako printzipioak eta bere espiritua garatzeko tresna da prozesu honekin lortu nahi duguna. Azkenik, azpimarratu nahiko genuke prozesu honen amaieran sortuko dugun ekarpena bakearen aldeko ituna ere izango dela.

Ondarea

Tresna: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa izango da proiektuak utziko duen ondare nagusia. Tokiko, nazio mailako eta nazioarteko erakundeek hizkuntzekin hartzen duten konpromisoaren erregulatzailerak izango da. Aldi berean, gizartearentzat tresna baliagarria izango da, elkarteek, antolakundeek eta mugimenduek erakunde publikoetan eragin ahal izateko.

Mugarria: Goi Bilerak Donostia eta bere Europako Kultur Hiriburutza hizkuntza aniztasunaren aldeko mugarri batekin ezaugarritzeko balioko du. Arlo honetan lurraldeak duen aberastasuna eta euskararen kasu paradigmatico bezala, testuinguru bezala jokatu dute. Gertaera historikoa izango da bertako herritarrentzat, hizkuntza gutxituen komunitateentzat eta hizkuntza aniztasunaren kezka duten europar guztientzat.

Eragina: Hizkuntzen eta beren kudeaketaren gaia Europako Kultur Hiriburu baten arreta gunera eraman eta horrek dakarren ikusgarritasuna eragingo du. Proiektuak herritargoa eta erakunde publikoak hizkuntza aniztasunarekiko eta bere kudeaketa justu eta orekatu baten bidean sentiberatzea ekar dezake.

Esperientzia: Proiektuak hainbat eragile engaiatuko ditu eta aurrerantzean kontuan hartzeko bizipena izango da haienentzat. Batzuentzat inoiz ez bezalako erronkak ekarriko ditu eta ikuspegi berrietara zabaltzea ekarriko du. Bidean irabazitako esperientzia eta ezagutza horiek euren etorkizuneko proiektuak aberastuko dituzten hausnarketa eta ikuspegiak eragingo dituzte.

Harremanak: Lankidetzaren proiektua izanik, etorkizunean partekatutako proiektu berrietan buka dezaketen harremanak sortuko ditu.

2016tik aurrera, prozesuak iraun bitartean eratutako egitura Protokoloaren jarraipenerako batzorde bakarrera murriztuko da. Bere egitekoa dokumentua nazioartean berretsia izan eta hizkuntzekiko praktiken gainean funtzio arautzailea bete dezaketen guneetara hel dadin bermatzea izango da. Gune horiek zein izango diren zehaztea prozesuan zehar lan taldeak egin beharreko lanetako bat izango da.

Antolaketa

Sustatzaileak

Proiektuaren sustatzaileak Kontseilua eta DSS2016 Fundazioa dira. Haien ekimenez sortua da eta haiek arduratuko dira garapen zuzena izan dezan zaintzeaz.


EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

KONTSEILUA euskalgintzako 40 eragile nagusien bilgunea da. KONTSEILUAren helburu nagusia euskararen normalizazio prozesua azkartzea da, eta bere misioa euskara maila pertsonal, sozial eta ofizialean berreskuratzea. Euskalgintzaren ordezkari zabalena da eta bere eragin lana hiru esparru nagusitan betetzen du: Herrietan tokiko eragileekin egiten du lan eta maila pertsonaleko konpromisoak sustatzen ditu modu berritzailean. Instituzioetan harremanak izaten ditu administrazioekin hizkuntza politika egokiak garabidean jartzeko. Nazioartean, KONTSEILUAk bi lan ildo nagusi jorratzen ditu; bate-tik, gurea bezalako erakundeekin harreman iraunkorrak jorratu eta, bestetik, nazioarteko instituzioetan gure egoeraren berri eman, Europako Kontseilua edo Nazio Batuen Erakundeetan. KONTSEILUA onura publikoko erakunde izendatua dago eta lehentasunezko zat jotzen den jarduerara egiten du.

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016 FUNDAZIOA



DONOSTIA / SAN SEBASTIAN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
EUROPEAN CAPITAL OF CULTURE

Europako Kultur Hiriburutza Europar Batasunaren ekimena da, Europako herrien arteko hurbiltasunean eta elkartrukean laguntzekoa. Hiru helburu nagusi ditu: Europako kulturen aberastasuna, askotarikotasuna eta ezaugarri komunak nabarmentzea, europarrek elkar hobeto ezagutzea sustatzea, Europako Erkidego bereko kide izateaz jabetzen laguntzea.

2016ko Europako Kultur Hiriburutza aukera handia da kulturaren eta elkarrizketaren aldeko apustua egiteko; hiriak hori aprobetxatzea erabaki du horien bidez elkarbizitza hobe bat eraikitzeko. Gainera, Europako gainerako herrialdeekin harremanak indartzeko eta kulturaren alorrean berrikuntza sustatzeko lan egingo da.

Proiektuak eragin berezia du herritar elkartuagoak lortzeko bideak iradokitzen dituzten alorretan: teknologiaren ezaguera eta erabilera sustatzen du, sormen prozesuetan bitartekaritzaren garrantzia azpimar-

ratzen du, hizkuntza aniztasuna bultzatzen du, herritarren ahalduntzea eta parte hartzea errazten ditu eta pentsamendu kritikoa indartzen du . DSS2016 fundazioa da proiektu osoaz arduratzen dena.

Talde Antolatzailea

Giza eskubideen, hizkuntza eskubideen, hizkuntza aniztasunaren eta hizkuntza gutxituen sustapenean diharduten gizarte erakundeen nazioarteko sareek edo gobernuz kanpoko erakundeek osatuko dute. Proiektuaren jarraipen zuzena egingo dute.

UNPO- ORDEZKATURIK GABEKO NAZIOEN ETA HERRITARREN ERAKUNDEA



Nazioarteko erakundea da. Herri indigenetako, gutxiengoetako eta lurralde aitortzarik ez duten edota lurraldea okupatuta duten taldeetako kideek osatzen dute. Horiek guztiek bat egin dute haien giza zein kultura eskubideak edota ingurumena babesteko, eta eragiten dien gatazkei irtenbide baketsuak aurkitzeko. UNPOko kideen helburuak desberdinak izan arren, baldintza batek batzen ditu: Nazioarte mailan ez daude egoki ordezkaturik.

Horrexegatik, UNPOk nazioarteko foro bat sustatzea du helburu, bere kideak partehartzaile eta ekarpen egile eragingarriak izan ahal izateko nazioarteko komunitateari begira. Izan ere, mundu gero eta interdependentean bizi gara eta, beraz, gero eta garrantzitsuagoa da eskubideak ukatuak dituzten horiek zeinek bere egoeraren berri aurkezteko aukera izatea.

UNPOren egoitza nagusia Bruselan dago eta lan handia egiten dute Europako Batasunean. Europako instituzioekin eta Europako Parlamentuko talde politikoekin lana erraztea du helburu. Horrela, bitartekari aktiboa da aholku emaile gisa.

LINGUAPAX INTERNATIONAL



Munduko hizkuntza aniztasuna balioztatzeko eta babesteko gobernuz kanpoko erakundea da. UNESCOk 1987an sortu zuen, baina orain erakunde independentea da. LINGUAPAXen arabera hizkuntzek gizateriaren kultur aniztasunaren aberastasuna adierazten dute eta, beraz, horien babesa bakearen eta nazioarteko elkar ulertzearen aldeko oinarritzko ekar-

pena da. Horretarako, LINGUAPAXek soziolinguistikaren eremuko ikerketa koordinatu eta gizarteratzen du.

Halaber, hizkuntza aniztasuna babesteko prozesu ideologiko, legegile edo politikoetan aholkuak ematen ditu, bai eta hizkuntza komunitate zehatzen berreskurapenerako programetan ere. LINGUAPAXek urtero nazioarteko saria banatzen du gizarte eragileetako ordezkari edo linguistei hizkuntza aniztasunaren edo hezkuntza eleaniztunaren alde egindako lanarengatik.

LINGUAPAXek aholkularitza lanak egin izan dizkie hizkuntza politikaren eta plangintzaren esparruan hainbat gobernuri, besteak beste, Txina, Brasil, Paraguay edo Bolivia. Halaber, hizkuntzen berreskurapenarekin lotutako proiektuetan lan egin izan du Nigerian, Hego Afrikan, Senegalen, Tanzanian, etab.

PEN INTERNATIONAL - ITZULPEN ETA HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BATZORDEA



Mundu zabaleko idazleen elkarte honek leku guztietako idazleen arteko adiskidantza eta lankidetzara sustatzea du helburu, kideek edozein ikuspuntu politiko edo bestelakoa badute ere. Elkartearen jomugak dira adierazpen askatasunaren alde borrokatzea.

Hizkuntza gutxituetan egindako literatura beste hizkuntzetara itzultzeko baliabideak eskaintzeaz gain, hizkuntza txikien arteko itzulpenak ere sustatzen ditu. Estaturik gabeko hizkuntzen defentsan ere aritzen da eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sustatu egin zuen, bai eta Hizkuntza Eskubideen Gironako Manifestua ere.

100 herrialde baino gehiagotan kokatutako 144 zentrok osatzen dute PEN International eta estatus aholku emailea du Nazio Batuen Erakundean.

EUROPAKO HIZKUNTZA BERDINTASUNAREN ALDEKO SAREA



ELEN europar mailako gobernuz kanpoko gizarte eragileen bilgunea da. Hizkuntza gutxiagotuen eta hizkuntza eskubideen sustapenaren, babesaren eta biziberritzearen alde lan egiten du. Europako hogeita bat estatutako 42 hizkuntza komunitate ordezkatzeko ditu. 2010ean sortu zen eta EBLUL (European Bureau for Lesser Used Languages – Hizkuntza Gutxiagotuen Europako Bulegoa) zena ordezkatzeko du. Estatus aholku emailea du Nazio Batuen Erakundean.

[=]

c i e m e n

CENTRE **INTERNACIONAL**
ESCARRÉ PER A LES **MINORIES**
ÈTNIQUES I LES **NACIONS**

CIEMEN gizarte zibil katalanaren erakundea da eta bertako errealitate nazionala munduaren aurrean ezagutarazteko eta sustatzeko lan egiten du, bai eta estaturik gabeko herrien eta nazioen ezagutza hedatzeko eta haien eskubide kolektiboak defendatzeko ere.

Hizkuntzaren eremuan, hizkuntza eskubideen defentsaren alde eta hizkuntzaren erabilera sozialaren alde bideratutako hainbat ekintza egin izan ditu. CIEMENen lan arloak hiru dira nagusiki: Ezagutzaren promozioa, nazioen eta gutxiengo etniko guztien eskubideekiko aitortpena eta elkartasuna. Azkenik, aipatu behar da CIEMENek Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren idazkaritza teknikoaren ardura izan zuela.

GUTXIENGOEN GAIETARAKO EUROPAKO ZENTROA



EUROPEAN CENTRE
FOR
MINORITY ISSUES

ECMIk praktika eta politikari buruzko ikerketak zuzentzen ditu, informazioa eta dokumentazioa ahalbideratzen ditu eta aholku zerbitzuak eskaintzen ditu gehiengo eta gutxiengoen inguruko gaietan. Europako Gobernuak eta gobernuen arteko erakundeak aholkatzen ditu, baita eta gutxiengoen taldeak ere. Zentroa komunitate akademikoarekin, hedabideekin eta publikoarekin, oro har, lankidetzan ari da informazio puntuala eta azterketak ahalbideratuz. 1996an sortu zen. Instituzioa independentea da eta diziplina anitzekoa. Zentroak harreman aktiboa mantentzen du gatazken konponbidean eta etnien arteko harremanetan inplikatuak dauden beste instituzio akademikoekin eta Gobernu Kanpoko Erakundeekin. Arlo horietan lankidetzak proiektuak burutzen ditu.

Batzorde Zientifikoa

Erreferentziazko 15-20 adituk, intelektualek eta ikertzailek osatuko dute. Batzordearen lana Goi Bileran aurkeztuko den eduki guztiaren lanketa burutzea izango da.

Sinatzaileak

Hizkuntzen inguruko ikerketa, sustapen lana eta gutxiengoaren eskubideen defentsan lan egiten duten eragileak izango dira, besteak beste. Eragile horiek nazioarteko komunitatearen aurrean balioa emango diote eta testuaren edukien ordekarari eta enbaxadore bihurtuko dira.

Jarraipen Batzordea

Protokoloaren aurkezpenaren ondoren bere zabalpenaz eta jasoko dituen babes adierazpenen jarraipenaz arduratuko den lan taldea izango da.

Urrats nagusien agenda

Proiektua nazioarteko eragileen eta adituen arteko elkarlanean oinarritzen da. Adoste prozesu baten ondorioz dokumentu bat jorratuko dute, Protokoloa. Aipatu dokumentua hizkuntzen arloko nazioarteko gizarte eragileek berretsiko dute eta *Europako Hizkuntza Aniztasunaren Goi Bilerarako* oinarria izango da.

Horretarako Talde Antolatzaileak Batzorde Zientifikoa osatu eta bere jarraipena egingo du. Hemendik eta Goi Bilera ospatu arte hainbat hitzordu aurreikusten ditu Talde Antolatzaileak.

Jadanik, beraz, honako hitzordu hauek aurreikusi daitezke :

- | | |
|--------------------|----------------------|
| • 2015eko martxoan | Talde Antolatzailea |
| • 2015eko uztaila | Talde Antolatzailea |
| • 2015eko udazkena | Batzorde Zientifikoa |
| • 2016ko maiatza | Talde Antolatzailea |
| • 2016ko iraila | Batzorde Zientifikoa |
| • 2016ko abendua | Goi Bilera |

Tartean Talde Antolatzaileak Idazkaritza Teknikoaren bidez koordinazio eta aholku lanak burutuko ditu, Goi Bilera antolatzeko eta Batzorde Zientifikoa koordinatzeko.

Erreferentziak

a) Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1996)

b) Nazio Batuen Erakundea

- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948)
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966)
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966)
- Teherango Aldarrikapena (1968)
- Haurren Eskubideen Aldarrikapena (1989)
- Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso eta Linguistikoen Eskubideei Buruzko Aldarrikapena (1992)
- Vienako Aldarrikapena eta Ekintza Programa (1993)
- Herri Indigenen Eskubideei Buruzko Aldarrikapena (2007)

c) Europako Kontseilua

- Giza Eskubideen eta Oinarrizko Eskubideen Babeserako Hitzarmena (1950)
- Gutxiengo eta Erregio Hizkuntzen Europako Ituna (1992)
- Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen markoa (1994)

d) UNESCO

- Kultur Aniztasunari Buruzko Aldarrikapen Unibertsala (2001)
- Adierazpen Kulturalen Aniztasunaren Babes eta Sustapenerako Hitzarmena (2005)
- Hizkuntzen bizitasuna eta Desagertzeko Arriskua txostena (2003)

e) Segurtasunerako eta Lankidetzarako Europako Erakundea

- Gutxiengo Nazionalen Hezkuntza Eskubideei Buruzko Hagako Gomendioak (1996)
- Gutxiengo Nazionalen Hizkuntza Eskubideei Buruzko Osloko Gomendioak (1998)
- Gutxiengo Nazionalen Bizitza Publikoan Parte Hartze Eraginkorrerako Eskubideei Buruzko Lundeko Gomendioak (1999)

f) Europako Parlamentua

- Europar Batasuneko Hizkuntza Aniztasunari eta Desagertzeko Mehatxua duten Hizkuntzei Buruzko Txostena (2013)